

artikulu nabarmenak
artículos destacados



urtarrila/enero

Revista
Derecho Social
y
Empresa

MONOGRAFÍA EMPLEO JOVEN
Número 1, Julio 2014
ISSN 1611-1038



Revista
Derecho Social
y
Empresa

MONOGRAFÍA EMPLEO JOVEN
Número 1, Julio 2014
ISSN 1611-1038

SÁNCHEZ-RODAS NAVARRO, Cristina. *La garantía juvenil en la Unión Europea. Obstáculos para su implantación*. Revista Derecho Social y Empresa, Madrid: Dykinson, 2014, 1. zk.

Espainiak badu Gazte Bermea Ezartzeko Plan Nazionala, Europar Batasuneko gainontzeko estaturen antzera. Planaren helburua langabeziari aurre egitea da, besteren konturako edo autoenplegurako eta ekintzailetasunerako bideei ekinga. 100 neurri egiten ditu bere Planak, eta gizarte eragileek eta administrazio publikoek hartzen dute parte. Aurretik erabilitako planteamenduetan oinarritzen da, eta aipatzekoak hauexek dira: inbertitu beharreko diru-zenbateko handiarena eta administrazioak proposamen bat egiteko behar duen denbora luzearena. Joeraren norabidea aldatzea proposatzen da, bestelakoa izatea, eta administrazioak hartutako konpromisoak ez betetzearen ondorioak saihestea

VALERO, Jorge. [La garantía juvenil despegando con un futuro incierto](#)- *Escritura pública*. Madrid: Consejo General del Notariado, 2014 – azaroa-abendua.

Gazte-enplegurako ekimena Europako erakundeek bultzatutako finantza-tresna bat da, estatu kideetako gazteen arteko langabezia-tasa % 25 baino txikiagoa bilakatu nahi duena. Erkidetako erakundeek ez dute arlo horretako eskumen zuzenik, baina Europako Batzordea lan-merkatua malgutzeko saioa egiten ari da eta Europar Parlamentua gazte-bermearen alde agertu da, nahiz eta asebeterik ez egon. Enplegu Komisarioak uste du gazte-bermeak arrakasta handiagoa izango duela eragiketa makroekonimoek laguntzen badute. Frantzia ekimenari finantziario handiagoa ematearen aldekoa da; Alemania, ordea, ez dago horretarako prest. Etorkizuneko ongizate-gizartearen giltzarria gazteak badira ere, berauen langabeziari aurre egiteko neurriei behar besteko laguntza ez emateak etorkizun hori zailtzen du. Espainian, besteak beste, Aragoiko Gazte Bermerako plana eta Gijóneko Gazte Ekimena Pizteko plana jarri dira abian.

VELASCO PORTERO, María Teresa. *El Plan nacional de Implementación de la Garantía Juvenil en Alemania*. Revista Derecho Social y empresa. Madrid: Dykinson, 2014, 2. zk., abendua.

Alemaniako Gazte Bermea Ezartzeko Plan Nazionala (AGBEPN) Enplegu Agentzia Federalaren eginkizuna indartzera dator, eta tokian tokio "jobcenter" izenekoaren sarean du sostengu. Artikulu-idazleak uste du gazteei aholkularitza- eta behar berezietarako egokitzapen-zerbitzuak eskaini behar zaizkiela. Estatu barruko eta kanpoko interesdunen lankidetzatza bultzatu behar dela dio (eskolak, komertzio-ganbarak, sindikatuak, eta abar); bai eta gobernu federalaren eta estatu federatuen arteko elkarlana ere. Arreta goiztiarra sustatu behar dela dio, eta, besteak beste, eskola uzteari aurre hartzea, mugikortasuna bultzatzea, desgaitasuna duten gazteei laguntzea, inmigrazioa bizi izan dutenak babestea, ekintzailetasuna... Finantziariorako bideak zehazten ditu: zergak, aseguruak eta industriaren diru-ekarpenak.

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA